


JOSE ANJEL IRIBAR EUSKAL HAUTATZAILEA

MAROKO

TALDE LEHIAKORRA



AITOR KARANKA
Real Madrileko zentrala.
Gaur jokatu du lehen aldiz selekzioarekin.



AGUSTIN ARANZABAL
Realeko laterala.
Lau aldiz aritu izan da selekzioarekin.




ANGEL LEKUNBERRI
Osasunako erdilaria.
Inoiz ez du jokatu selekzioarekin.



GAIZKA MENDIETA
Valentziako erdilaria.
Bi aldiz aritu da, eta gol bat sartu du.



TXOMIN NAGORE
Numanciako erdilaria.
Honek ere gaur jokatu du estreinako aldiz.



JOSU URRUTIA
Athleticeko erdilaria.
Hiru aldiz jokatu du eta bi gol sartu ditu.



BITTOR ALKIZA
Athleticeko erdilaria.
Gehien jokatu duena: sei aldiz aritu da.



JAVIER DE PEDRO
Realeko erdilaria.
Bost aldiz jokatu eta gol bat sartu du.



IÑIGO IDIAKEZ
Realeko erdilaria.
Lau partidu jokatu ditu eta bi gol egin.



OSCAR DE PAULA
Realeko aurrelaria.
Bi partidutan hiru gol egin ditu selekzioarekin.



ISMAEL URZAIZ
Athleticeko aurrelaria.
Bi aldiz jokatu du selekzioarekin.



JON PEREZ 'BOLO'
Rayoko aurrelaria.
Behin jokatu du selekzioarekin.

«Frantziako Munduko Txapelketan garbi ikusi genuen Marokoko selekzioa maila oneko taldea dela»

«Gure taldea osatzen duten jokalariek oso lehiakorak dira eta Euskadik maila bikaina emango du berriz ere»

«Mila oztopo daude munduko selekzio onenak ekartzeko»

Ramon Basaldua | BILBO


Jose Anjel Iribarrek ilusio handiz ekingo dio gaurko partiduari, eta aulkian izango da gripeak jota egon arren.

■ Zelan ikusten duzu Marokoren aurkako partidua?

Aurkari bikaina da inolako zalantzarik gabe. Afrikako talderik onenetariko bezala kontsideratuta daude, eta, 1998-an, Frantziako Munduko Txapelketan garbi ikusi genuen maila oneko selekzioa dela. Jokalari asko Europan ari dira jokatzeko, talde handietan gainera. Horrek indarra ematen dio Marokori. Guretzat interesgarria da halako selekzioen aurka jokatzeko. Azken urteetan izen handiko aurkariak izan ditugu eta gure selekzioak ondo jokatu du, eta zaleria eta gu gustura geratu gara. Aurtengo partidua ere interesgarria izango da eta gure asmoa da bide horretatik jarraitzea.

■ Selekzioa osatzen duten jokalariek ikusita, talde indartsua dela esan daiteke inolako zalantzarik gabe, ezta?

Gure taldea indartsua da. Dena den, esan behar dugu jokalariek batzuek ezingo dutela parte hartu Marokoren aurkako partiduan, lesionaturik daudelako. Edozein kasutan, gure taldea osatzen duten mutilak



oso lehiakorak dira eta Euskadi selekzioak maila bikaina emango du berriz ere.

■ Urteak aurrera doaz eta ez da urrats berririk eman; hots, selekzioak urtero partidu bat jokatzeko eta kito. Noiz aldatuko dira gauzak?

Hau proiektu bat da eta tramite batzuk gainditu behar ditu. Oraingoan, partidu hau daukagu, baina gu lanean ari gara urrats gehiago egiteko. Hor dago EAEko Legebiltzarrak onartutako Euskal Kirolaren Legea euskal selekzioak bultzatzeko asmoz. Beste urrats batzuk egin behar dira eta orain arte ezin izan ditugu

eman. Guk ez dugu etsiko eta lanean jarraituko dugu.

■ Euskal selekzioaren maila ikusita, noiz izango da munduko talde indartsuen aurka jokatzeko aukera?

Azkeneko urteetan izan ditugun aurkariak maila onekoak izan dira. Oso zaila da goi mailako aurkari bat lotzea partidu honetarako, mila oztopo daude eta. Jokalariek eta taldeek urtero partidu asko jokatzeko dituzte eta zaila da munduko selekzio onenak ekartzeko. Horixe da gure asmoa eta ahalegin guztiak egiten ditugu urtero ahalik eta aurkari indartsuena ekartzeko.

Euskal Autonomi Erkidegoko Ontzien eta Ontzi-hondakinen Kudeaketa Sistema

Hemendik

liburuak, ateratzen dira, baina hau ez da liburutegia.

Sinestezina da zaborra banatu eta zabor mota bakoitza bere edukiontzian gordetze hutsarekin lor daitekeena. Esaterako: produktu berriak lortzeko, aski da papera eta kartoia gainerako zaborretik banatzea, berreskurazinak diren lehengaiak kontsumitu beharrik gabe. Eta, gainera, ingurugiro eragina eta kutsadura gutxitzen lagunduko diguzu. Ez al duzu uste zaborrak bigarren aukera merezi duenik?

Banatu zaborra eta gorde zabor mota bakoitza bere edukiontzian: oso erraza da.

Birziklatu, guztiok irabaziko dugu

